	Erantzun penala irtenbidea ez izatea	15	1	1	-	16	1
	Justizia Administrazioan eta haren erantzunetan konfiantzarik ez izatea.	-	-	1	-	1	-
	Epaiketaz kanpoko akordioa	1	-	-	-	1	-
	Beste batzuk	24	5	3	1	27	6
Ez du daturik ematen		44	14	1	-	45	14
Guztira		1623	103	30	9	1653	212

Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza

12. taula. BLZ. Lagundutako pertsonak, sexuaren eta bigarren biktimizazioaren arabera. Bizkaia. 2007.

BIGARREN BIKTIMIZAZIOA		Zuzeneko biktima		Zeharkako biktima		GUZTIRA	
		Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak
BAI	Poliziarena	22	7	-	-	22	7
	Justiziarena	37	6	5	-	42	6
	Abokatuena	23	-	-	-	23	-
	Soziofamiliarra	1	1	-	-	1	1
	Beste batzuk	8	1	4	-	12	1
EZ		408	37	7	-	415	37
Ez du daturik ematen		418	83	10	5	428	88
Guztira		917	135	26	5	943	140

Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza

13. taula. BLZ. Lagundutako pertsonak, sexuaren eta eskaera motaren arabera. Bizkaia. 2007.

ESKAERA MOTA		Zuzeneko biktima		Zeharkako biktima		GUZTIRA	
		Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak
Lege aholkularitza	Eskubideei buruz	197	57	10	-	207	57
	Kalte ordainei buruz	-	-	-	-	-	-
	Prozedurei buruz	123	14	5	1	128	15
Laguntza psikologikoa		105	5	-	-	105	5
Gizarte laguntza		548	45	17	5	565	50
Lagun egitea		3	-	-	-	3	-
Zehaztugabea		60	1	1	1	61	2
Guztira		1036	122	33	7	1069	129

Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza

14. taula. BLZ. Lagundutako pertsonak, sexuaren eta jasandako kalteen arabera. 2007.

DELITU MOTA	Zuzeneko biktima		Zeharkako biktima		GUZTIRA	
	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak	Emak.	Gizonak
Fisikoak	634	61	7	-	641	61
Psikologikoak	603	64	18	3	621	67
Ekonomikoak	68	9	8	-	76	9
Gizartekoak	28	1	6	1	34	2
Zehaztugabeak	77	19	4	1	81	20
Guztira	1.410	154	43	5	1.453	159

Iturria: Biktimari Laguntzeko Zerbitzua. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila. Eusko Jaurlaritza

III.C. Abokatu laguntzaren gaineko datuak (Ofiziozko Txanda)

III.C.1. Biktimen gaineko datuak

1. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Lagundutako biktimak, adinaren, sexuaren eta herritartasunaren arabera. Bizkaia. 2007.

ADINA	Emakumeak		Gizonak		GUZTIRA	
	Espainiakoak	Atzerritarrak	Espainiakoak	Atzerritarrak	Espainiakoak	Atzerritarrak
0-6	-	-	-	-	-	-
6-12	-	-	-	-	-	-
13-18	33	9	7	3	40	12
19-25	93	98	4	3	97	101
26-35	246	194	26	5	272	199
36-45	237	95	15	7	252	102
46-55	101	24	17	3	118	27
56-65	53	4	5	0	58	4
>65	50	2	6	0	56	2
Guztira	813	426	80	21	893	447

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

III.C.2. Esku-hartzeen gaineko datuak

1. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Esku-hartzearen arrazoia, sexuaren arabera. Bizkaia. 2007

ARRAZOIA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Tratu txarrak	1.519	137	1.656
Sexu askatasunaren aurkako delituak	20	0	20

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

2. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Partikularren aldetik jasotako dei kopuruak, sexuaren arabera. Bizkaia. 2007

	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Jasotako deiak	1.535	140	1.675

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

3. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Esku-hartze kopuruak, sexuaren eta jatorrizko erakundearen arabera. Bizkaia. 2007.

JATORRIA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Biktimentzako telefona	19	2	21
Gizarte zerbitzuak	5	-	5
Ertzaintza	766	85	851
Beste polizia batzuk	92	-	92
Organo judizialak	624	50	674
Osasun zerbitzuak	-	-	-
Abokatuen Elkargoa	-	-	-
Beste batzuk	12	-	12

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

4. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Esku-hartze motak, sexuaren arabera. Bizkaia. 2007.

ESKU-HARTZE MOTA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Elkarrizketa-Aholkularitza-Informazioa Dohako Laguntza Juridikoan	1.007	96	1.103
Esku-hartze judiziala	1.459	128	1.587

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

5. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Esku-hartze kopuruak, sexuaren eta barruti judizialaren arabera. Bizkaia. 2007.

BARRUTI JUDIZIALA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Balmaseda	35	-	35
Barakaldo	381	38	419
Bilbo	834	70	904
Durango	61	5	66
Gernika	78	11	89
Getxo	127	13	140

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

III.C.3. Jardueren gaineko datuak

1. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Jarduera motak, sexuaren arabera. Bizkaia. 2007.

JARDUERA MOTA	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Zibila	60	2	62
Penala	1.425	123	1.548

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

2. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Jardueraren ezaugarriak, sexuaren arabera. Bizkaia. 2007.

JARDUERAREN EZAUGARRIAK	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Salaketa jartzea	620	60	680
Zuhurtziazko neurriak eskatzea	516	45	561
Biktimaren deklarazioan laguntzea	893	77	970
Behin-behinekoen aurreko neurriak	266	6	272
Bestelako jarduerak	334	30	364

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

3. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimantzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua. Beste jarduera batzuk, sexuaren arabera. Bizkaia. 2007.

JARDUERAK	Emakumeak	Gizonak	GUZTIRA
Fiskaltza esku har dezala eskatzea	1.009	92	1.101
Auzitegiko medikuak esku har dezala eskatzea	525	52	577
Biktima udalerrria uztea	310	26	336

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

III.C.4. Izendatzen gaineko datuak

1. taula. Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimantzako ofiziozko txanda. Izendatze kopuruak. Bizkaia. 2007.

ALDIA	Izendatze kopurua
Lehen seihilekoa	606
Bigarren seihilekoa	647
Guztira	1.253

Iturria: Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

III.D. Auzitegiko mediku laguntzaren gaineko datuak

1. taula. Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Etxeko indarkeriaren arloko jarduerak, Lurralde Historikoaren arabera. 2007.

JARDUERA MOTA	ARABA		BIZKAIA		GIPUZKOA		GUZTIRA
	Paziente berria	Azterketa	Paziente berria	Azterketa	Paziente berria	Azterketa	
Jarduera guztiak	2.917	3.775	15.518	15.847	7.065	8.939	54.061
Etxeko indarkeria	279	289	960	969	375	744	3.616
Sexu erasoak	20	32	55	55	43	65	270

Iturria: Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila.

TERMINOEN GLOSARIOA

I. Arloa: GIZARTE BABESA

Larrialdietarako Harrera Zerbitzua – Larrialdiko Harrera Zerbitzua (BFA)

Zerbitzu hau Emakume eta Familien Zerbitzuaren lan-ordutegitik kanpo ematen zaie tratu txarrak jasaten dituzten emakumeei, bai eta haien ardurapeko seme-alabei eta pertsoneri ere.

Harrera arrunta – Emakumeei Laguntza Emateko Zentroak (BFA)

Egonaldi ertain eta luzeetarako zentroak dira, eta Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailarekin lan egiten dute. Haien arazo familiar, sozial edo pertsonalak direla eta, ohiko ingurunetik ateratzea eta egoitza zentro berezi batean laguntza jasotzea komeni zaien emakumeentzat dira.

Familia Topagunearen Zerbitzua

Bikotea banandu bitartean nahiz banandu ostean, seme-alaba adingabeen eta aitaren eta amaren arteko harremanak mantentzerakoan gatazka edo zailtasuna duten familientzat. Haren zereginetako bat da egoki hornitutako lokal bat ematea, diziplina askotako langile espezializatuekin, tratu txarrak jasan dituzten emakumeen segurtasuna babesteko helburuarekin, ardurapean adingabeak dituztenean eta babes agindua daukatenean, agindu horretan erasotzailearentzako urruntze-neurria ezartzen eta, aldi berean, adingabeekiko bisita erregimena onartzen delako.

Arreta Espezializatuko Familien Topagunearen Zerbitzua

Funtsean bideratuta dago adingabearen edo nerabearen eta gurasoen, familiaren, edo ingurukoaren arteko bisitetarako, baldin eta adingabearen gainean administrazioak, kasu honetan BFAk Gizarte Ekintza Saileko Umeen Zerbitzuaren bidez, babes funtzioa badauka. Zerbitzuaren helburua arteko harremanak erraztea da, beti ere jatorrizko familiarekiko edo biologikoarekiko lotura erabat hautsi ez bada, eta kontuan hartuta, bisitetan lehenetsun dutela, uneoro, ume edo nerabearen interesak eta ongizateak.

Emakumeen aurkako etxe eremuko indarkeria dela eta, Familiar Esku Hartzeko Programa Espezializatua

Bizkaiko Foru Aldundiak abian jarritako programa honek laguntza psikologiko eta soziala eskaintzen die, genero indarkeriaren biktima izanda, erasotzailea bizi den etxean jarraitzea edo hara itzultzea erabakitzen duten emakumeei; erasotzailearekin bizi ez badira ere, harekin berriro bizitzeko eta, beraz, tratu txarren lehengo egoerara itzultzeko arrisku handia duten emakume biktimei; eta familia hauetan bizi diren adingabeei. Programa honen bidez aurre egin ahal zaie gerta litezkeen krisi egoerei, eta jasotzaileek trebetasun eta baliabideak eskuratzen dituzte egoerari irtenbide egokia emateko.

Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei etxebizitza babestua eskaintzeko jarduera plana

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak abian jarritako plana da, tratu txarrak jasaten dituzten emakumeek dituzten etxebizitza gabeziei aurre egiteko. Egun, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako sailburuak genero indarkeriaren biktima diren emakumeentzat etxebizitzaren arloko ekintza positiboko neurriei buruz 2006ko urriaren 4an emandako agindu batean dago jasota. Agindu horretan etxebizitzaren arlok neurri hauek daude ezarrita genero indarkeria jasaten duten emakumeentzat:

- Genero indarkeriaren biktimak sartzea alokairu erregimeneko esleipen prozeduretan seme-alaba adingabeen ardura duten guraso bakarreko unitateentzat gordetako erreserban.
- Genero indarkeriaren biktima diren emakumeei Etxebizitza Hutsaren Programako etxebizitzak zuzenean esleitzea errentamendu erregimenean.

II. Arloa: POLIZIA

Biktimizazioak

Ertzaintzaren definizioaren arabera, "biktimizazioen estatistikak barne hartzen du biktimek legez kontrako ekintza penalak jasan dituzten aldi bakoitza, halakotzat Ertzaintzan jaso direnetan, herritarraren salaketaren bidez dela edo atestatuaren bidez dela".

Biktima

Ertzaintzaren definizioaren arabera, "*biktimen estatistikak pertsonak baino ez ditu kontuan hartzen*"; hala, "*pertsona bati egindako mehatxuak direla eta, salaketa bat baino gehiago jarrita ere, biktima bakarra zenbatzen da*".

Egitate mota

II. arloko (poliziala) tauletan jasotako sailkapena Ertzaintzak egin duen egitateen sailkapenari dagokio. Hala:

DELITUA. Hauek barne hartzen ditu:

- Giza hilketa eta giza hilketaren formak (Giza hilketa/ probokazioa, konspirazioa edo hilketa/ erailketa proposamena)
- Lesioak (Lesioak zihurtziagabekeriagatik/ Familia barruko tratu txarrak / Lesioak)
- Askatasunaren aurkako delituak (Bahiketa / Mehatxuak / Derrigortzea)
- Torturak eta osotasun moralaren aurkako delituak (Tratu degradantea/ Familia barruko ohiko tratu txarrak)
- Bizitza pribatuen, nor bere irudia izateko eskubidearen, eta abarren aurkako delituak (Bizilekua botxatzea, eta abar)
- Ohorearen aurkako delituak (Kalumnia / Iraina)
- Familia harremanen aurkako delituak (Zaintza eginbeharrak urratzea/ Adingabea familiaren egoitza uztera induzitzea/ Adingabea ostea/ Familia bertan behera uztea/ Ordainsariak ez ordaintzea/ Adingabea abandonatzea)
- Justicia Administrazioaren aurkako delituak (Segurtasun neurria, zuhurtziazko neurriak, zigorrak eta abar urratzea)

FALTA. Hauek barne hartzen ditu:

- Lesio faltak
- Lesiorik eragin gabeko tratu txarren faltak
- Iseka faltak
- Mehatxu faltak
- Derrigortze faltak
- Irain faltak
- Gurasoek adingabearen zaintza urratzearen faltak
- Dibortzioko hitzarmena edo epailearen ebazpena ez betetzearen faltak

III. Arloa: JUSTIZIA

Emakumeen aurkako indarkeriaren arloko epaitegiak

Eskumen objektiboa zigor arloan

1. Haien eskumena da prozesuak bideratzea gizon batek emakume baten kontra etxearen eremuan edo bikotearen barruan egindako delituak direla eta, Zigor kodean giza hilketari, abortuari, lesioei, fetuari eragindako lesioei, askatasunaren aurkako delituei, eta osotasun moralaren aurkako delituei, sexu askatasun eta sexu ukigabetasunaren aurkako delituak direnean nahiz indarkeriaz edo larderiaz egindako beste edozein delitu denean.
2. Epaiketa azkarrak epaitzea, adostasuna dagoenean, bai eta Zigor Kodeko III. Liburuko I. eta II. tituluetan jasotako faltak (pertsoneen aurkako eta ondarearen aurkako faltak) epaitzea ere.
3. Biktimentzako babes aginduak (neurri zibil nahiz penalak ezarrita).

Eskumen objektiboa arlo zibilean

Arazo hauek aintzat hartzen dituzten prozesuak; seme-alabatasuna, amatasuna, aitatasuna, ezkontza-banantzea, dibortzioa, ezkontza-deuseztasuna, gurasoen eta seme-alaben arteko harremanak, familiari eragiten dioten neurriak, ezkontzaz kanpoko familiari buruzko neurriak, adopzioari buruzko baiespena, adingabekoak babesteko arloko administrazio ebazpenei aurka egitea, eta babes aginduan ezarritako neurri zibilak kendu, berretsi edo aldatzea. Hori guztia aurrera eramateko baldintza hauek bete behar dira nahitaez: a) Emakumearen aurkako indarkeriaren arloko epaitegian genero indarkeriari buruzko zigor prozesua hasi izana edo babes agindu bat eman izana; eta b) zigor prozesuko biktima eta egilea prozesuko zibileko alderdi izan daitezen.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua doakoa da, eta borondatezkoa, eta informazioa eta laguntza ematen die delituen biktimei. Halaber, operadore juridikoekin batera lan egiten du. Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzaren mende dago. Babes adindua indarrean sartzearekin bat, BLZk koordinaziogune gisa jarduten hasten da.

Zuzeneko / zeharkako biktima

BLZaren definizioaren arabera, "zeharkako biktima da, delituzko egitatea zuzenean jasan gabe ere, zuzeneko biktimaren duen afektibitatezko harremana izateagatik edo kolektibo berekoa izateagatik, egitate horren ondorioen bat jasaten duen pertsona oro (...). BLZn laguntza jasotzen duten zeharkako biktima gehienak ez dira zuzeneko biktimaren familia taldekoak.

Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua

Etxeko indarkeriako kasuez arduratzen den zaintzako eta laguntzako txanda berezia da. Txanda horren ezaugarri nagusia da eguneko 24 orduetan abokatu batek zaintzako eta laguntza emateko zeregin horretan baino ez duela jarduten, eta abokatu horixe arduratzen dela biktima baten kasuan esku hartzera daramaten gertakarien ondorioz sortutako prozedura judicial guztiez, prozeduraren mota eta izaera edozein izanik ere.

ITURRIAK

I. Arloa: GIZARTE BABESA

Emakume eta Familien Zerbitzua. Gizarte Ekintza Saila. Bizkaiko Foru Aldundia.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gizarte Ekintza Sailaren barruan, Emakume eta Familien Zerbitzuari eman zaion zeregina da emakumea sustatzen eta gizarteratzen jardutea, sexuen arteko berdintasunerako politikaren bidez nahiz familiari laguntza eta babesa emateko politikaren bidez.

Zeregin horien artean dago tratatu txarrak jasan dituzten emakumeentzako eta haien ardurapeko seme-alabentzako hainbat zerbitzu aurrera ematea; halaber, zerbitzu honek emakumeen kontrako indarkeria desagerrarazteko programak sustatzeko helburua du. Horrekin batera, jarduera eremu honetan aritzen diren erakunde publiko eta pribatuekin lana koordinatzeko zeregina du, bai eta jarduera eremu horretaz arduratzen diren Foru Aldundiko zerbitzu eta atalekin, Sail bereko unitateekin gehienbat, harremanetan egoteko eta koordinatzeko bideak ezartzeko zeregina ere.

Gizarte Ekintza Saila
Emakume eta Familien Zerbitzua
Ugaskobidea, 3 – 2. solairua
48014 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 944 06 80 00

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerriak eta mankomunitateak

2007 urtean, Bizkaiko Lurralde historikoan 112 udalerrri daude, eta badaude, era berean, 9 mankomunitate gizarte arloko zerbitzuak emateko; mankomunitateok, hain zuzen, 76 udalerrri biltzen dituzte (% 68):

1. Arratiako mankomunitatea:

Arantzazu, Areatza, Arteaga, Bedia, Dima, Igorre, Lemoa, Ubide, Zeanuri.

2. Busturialdeko mankomunitatea:

Arratzu, Busturia, Ea, Elantxobe, Errigoiti, Forua, Gautegiz Arteaga, Gernika-Lumo, Ibarrangelu, Kortezubi, Mendata, Morga, Mundaka, Murueta, Muxika, Sukarrieta

3. Durangoko Merindadearen Mankomunazgoa:

Abadiño, Atxondo, Durango, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria, Otxandio, Zaldibar

4. Enkarterriko mankomunitatea:

Artzetales, Karrantza Harana, Galdames, Gordexola, Gueñes, Lanestosa, Sopuerta, Trucios-Turtzioz, Zalla

5. Lea-Artibaiko mankomunitatea:

Berriatua, Etxebarria, Ispaster, Lekeitio, Markina-Xemein, Ondarroa, Ziortza-Bolibar

6. Lea Ibarreko mankomunitatea:

Amoroto, Aulesti, Gizaburuaga, Mendexa, Munitibar

7. Mungialdeko Gizarte Zerbitzuetako Partzuergoa:

Arrieta, Bakio, Fruiz, Gamiz-Fika, Laukiz, Meñaka, Mungia

8. Uribe Kostako mankomunitatea:

Barrika, Berango, Gorniz, Lemoiz, Plentzia, Sopelana, Urduliz

9. Txorierriko mankomunitatea:

Derio, Larrabetzu, Lezama, Loiu, Sondika, Zamudio

Bizkaiko Lurralde Historikoko udalerrri eta mankomunitateetan datuak biltzeko informatzaile gisa gizarte ongizateko eta berdintasuneko arloetako arduradun teknikoak hartu dira.

Lege aholkularitza eta laguntza psikologikoa emateko zerbitzuen kasuan gehienbat azpikontratazioa baliatzen denez, gero kontsultak egin behar izan zaizkio halako zerbitzuak ematen jarduten duten pertsona fisiko edo juridikoei, eta erakundeetako arduradun teknikoek berek edota, azken horiek hala adierazita, Infopolisek egin dituzte kontsultok.

Gaien aldetik, datu-bilketaren estaldurak zerbitzuko erabiltzaileen kopurua eta tratu txarren arazoak dituzten emakume erabiltzaileen kopurua barne hartzen ditu, tratu txarrak izan zein ez izan kontsulta eragin dutenak. Harrera zerbitzuari dagokionez, emakume horrekin batera hartzen diren pertsonen kopurua ere ikertzen da.

Geografiaren aldetik, estaldurak gizarte zerbitzuak emateko probintziako mankomunitate guztiak barne hartzen ditu, bai eta lege aholkularitza, laguntza psikologikoa edo harrera zerbitzua eskaintzen duten Bizkaiko udalerrri guztiak ere, nahiz eta mankomunitate batean ez egon zerbitzu horiek emateko.

Hona hemen kontsultaturiko erakundeen (udalak eta mankomunitateak) kopuruak:

- ✓ Lege aholkularitzako zerbitzua bakarrik: 9 erakunde (udalak: Abanto Zierbena, Arrigorriaga, Balmaseda, Bermeo, Etxebarri eta Ortuella; mankomunitateak: Lea-Artibai, Lea Ibarra, eta Uribe Kosta).
- ✓ Laguntza psikologikoko zerbitzua bakarrik: 2 erakunde (udalak: Gernika-Lumo eta Portugalete).
- ✓ Harrerako baliabidea bakarrik: erakunde bat (udala: Sestao).
- ✓ Lege aholkularitzako eta laguntza psikologikoko zerbitzuak: 7 erakunde (udalak: Amorebieta-Etxano, Urduña, Getxo, Leioa, Muskiz eta Zalla; mankomunitateak: Durangaldea).

- ✓ Lege aholkularitzako zerbitzua eta harrerarako baliabidea: 2 erakunde (udala: Bilbo; mankomunitatea: Busturialdea).
- ✓ Lege aholkularitzako zerbitzua, laguntza psikologikoko zerbitzua, eta harrerako baliabidea: 6 erakunde (udalak: Barakaldo, Basauri, Ermua, Galdakao eta Santurtzi; eta Mungialdeko partzuergoa).

Erakundeen helbideak Bizkaiko Genero Indarkeriaren Behatokiaren web orrian dagoen genero indarkeriaren arloko (BLH) baliabiden maparen estekan aurkitu daitezke.

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/eu_mapa.asp

http://www.bizkaia.net/Gizartekintza/Genero_Indarkeria/ca_mapa.asp

Gizarte Gaietako Sailburuordetza (Gizarte Ongizate Zuzendaritza) eta Etxebizitza Sailburuordetza.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza

Etxebizitza eta Gizarte Gaietarako Saila hiru sailburuordetzatan antolatuta dago; hain zuzen, Gizarte Gaiak, Etxebizitza eta Herritarren Partaidetza eta Harreman Instituzionalak dira sailburuordetza horiek, eta bakoitzak, era berean, zuzendaritzak ditu bere egiturari, gaien arabera. Zerbitzu Zuzendaritzak Sailaren egitura organikoa osatzen du, eta organo horizontal gisa funtzionatzen du, zuzenean sailburuaren mende.

Etxebizitza Sailburuordetzaren xede nagusia da, sailaren eskumenen artean, honako gaiak aintzat hartzen dituztenak aurrera eramatea: zorua eta hirigintza, etxebizitza, arkitektura, plangintza, herritarrei laguntzea eta etxebizitzaren inguruko laguntzak kudeatzea, eta eraikuntzaren berrikuntza eta eraikitze kalitatea sustatzea.

Gizarte Gaietako Sailburuordetzaren zeregin nagusiak, bestalde, honako hauek dira: garapenean laguntzeko jarduerak eta gizarte ongizateari, gizarte zerbitzuei, borondatezkoari, immigrazioari, eta droga mendekotasunari loturiko jarduerak planifikatu eta koordinatzea; eta Haur eta Nerabeen Defentsa Bulegoarekiko harremanez arduratzea.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba).
Tel.: 945016402 Luz.: 16402
Faxa: 945016401

II. Arloa: POLIZIA

Estatistika Arloa. Segurtasun Sailburuordearen Kabinetea. Herrizaingo Saila. Eusko Jaurlaritza

Segurtasun Sailburuordetza da Polizia Zerbitzuetarako Datuak Lantzeko Zentroaz eta hura osatzen duten fitxategiez arduratzen den organoa, 1992ko uztailaren 17ko Euskal Herriko Poliziari buruzko 4/1992 Legean jasotako ondorioetarako.

Eman zaizkion gainerako zereginen artean dago polizia-lanerako interesa duten estatistikak osatzea, datuak biltzeko prozesua, bildutako datuak analizatu eta aztertzea, eta sailaren barruan ustiatu eta hedatzea barne, Saileko arduradunek erabakia hartzeko prozesuan orientagarriak izan daitezten.

Herrizaingo Saila
Segurtasun Sailburuordetza
Larrauri Mendotxe Bidea, 18
48950 Erandio (Bizkaia)
Tel.: 946 07 92 06
Faxa: 946 07 92 07

III. Arloa: JUSTIZIA

Justizia Sailburuordetza. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza.

Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Sailak lau sailburuordetza dauzka bere antolakuntzan: Kabinetearena; Justizia; Lan eta Gizarte Segurantzza; eta Gizarteratze eta Familia. Era berean, haietako bakoitza zuzendaritzatan antolatuta dauden, gai berezi bakoitzaren arabera.

Justizia Sailburuordetzaren xede nagusia da, Sailari esleituriko eskumenen artean, honako hauek aurrera eramatea: Botere Judizialarekiko eta Justizia Administrazioan diharduten gaienerako erakunde eta organoekiko harremanez arduratzea; administrazio hori funtzionatzeko behar dituen baliabideaz hornitzea; giza eskubideak babestu eta aldeztea; agintaritzak judizialak ezarritako neurriak gauzatzea; eta espetxeei loturiko eskumenak baliatzea.

**Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila
Justizia Sailburuordetza**

Donostia kalea, 1
01010 Vitoria-Gasteiz (Araba)
Tel.: 945 01 91 16 Luz.: 19116

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saila. Eusko Jaurlaritza

Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantzza Saileko Giza Eskubideen Zuzendaritzaren mende dago zerbitzu hau Haren helburua da laguntza juridikoa, laguntza psikologikoa eta sorospena ematea delituen biktimei, aurrera eramaten diren prozedura polizial eta judizialen barruan.

Biktimari Laguntzeko Zerbitzua (BLZ)

Ibáñez de Bilbao kalea, 3
Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 944 016 487 eta 900 400 028

**Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundea. Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Saila.
Eusko Jaurlaritza**

AMEE Euskadiko Autonomia Erkidegoko epaileei, auzitegiei eta fiskaltzari laguntzeko organoa da. Haren eginkizuna da, batik bat, instantzia horiek eskatzen dioten auzitegiko medikuntzako aditu txosten oro taxutzea. Administrazioaren aldetik, erakunde hori Eusko Jaurlaritzako Justizia Sailaren mendekoa da, eta han dihardutenak Auzitegietako Medikuen Espainiako Kidegoko funtzionarioak dira.

Auzitegiko Medikuntzako Euskal Erakundeko Zerbitzu Klinikoa

Buenos Aires kalea, 6
48001 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 944 016 484

Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua.

EAEko Etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktimentzako laguntza juridikoko eta ofiziozko txandako zerbitzua 2002an sortu zen, Legekarien Euskal Kontseiluaren eta Eusko Jaurlaritzako Justizia, Lan eta Gizarte Segurantza Sailaren artean hitzarmena sinatuta.

Zerbitzuan abokatuek etengabeko zaintzaldia egiten dute, eta epaitegietatik, polizia-etxeetatik nahiz gizarte, osasun eta laguntza zerbitzuetatik jasotzen dituzten deiez arduratzen dira, familiaren barruan etxeko indarkeriaren eta sexu erasoen biktima izan diren pertsona guztiei laguntzearren. Laguntza juridikoa aurrez aurrekoa izango da, bai abokatuaren bulego profesionalan, bai polizia etxean, bai epaitegian, bai gizarte zerbitzuan, eta hitzarmenean sinatutakoarekin bat, gehienez ordu eta erdiko epean emango da laguntza hori.

Bizkaia Jaurerriko Abokatuen Bazkun Ohoretsua

Uribitarte Erranplak, 3
48001 Bilbo (Bizkaia)
Tel.: 944 35 62 00

1. ERANSKINA

DOKUMENTUA

“Emakumeen aurkako indarkeria. Terminologia proposamenak”

Etxeko tratu txarrak eta sexu erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea
emateko erakunde arteko hitzarmenaren Jarraipen Batzordea
Euskal Autonomia Erkidegoa

EMAKUMEEN AURKAKO INDARKERIA.
PROPOSAMEN TERMINOLOGIKOAK.

Erakunde arteko Hitzarmenaren Jarraipen Batzordea

Gaur egun emakumeen aurka, emakume izate hutsagatik, era batera eta bestera eragiten den indarkeriaren fenomenoaren izendatzeko kontzeptu asko erabiltzen dira: “indarkeria sexista”, “gizonezkoen indarkeria”, “genero-indarkeria”, etab. Dena den, terminologia bateratu eta errakuntzak saihestu nahian, “emakumeen aurkako indarkeria” erabiltzea proposatzen da. Hainbat arrazoi ikusi ditugu hautu hori egiteko: lehenik eta behin, gai honetan aditu izan gabe edonork ulertzeko moduko termino argi eta ulerterraza delako; bigarren, indarkeria-mota hau emakumeek pairatzen dutela nabarmentzen delako eta; hirugarren eta azken, uneotan bera delako adostasun sozial eta politiko handiena biltzen duen adierazpidea eta agiri juridikoetan eta nazioartekoetan¹ erabiltzen ari dena. Nahiago dugu “genero-indarkeria” terminoa baztertzea, horren helmene eta esanahia argi zehazten ez bada edo espresuki 1/2004 Lege Organikoari ez badagokio, behintzat, azken aldi honetan hainbat sektoretan indartzeaz gain estatuko araudi berriari azaltzen bada ere, denek ez dutelako esanahi berarekin erabiltzen, eta ondorioz, argitu beharrean nahasmendua ari delako eragiten. Izan ere, “emakumeen aurkako indarkeriaren” sinonimotzat erabiltzen da batzuetan, eta bestetan, berriz, zentzu zabalagoa ematen zaio eta genero-harremanen ondorioz pertsonen –emakumeak bereziki, baina ez beti- paira dezaketen edozein indarkeria-motari egokitu. Zenbaitetan, halaber, emakumeen aurkako indarkeriaz jardutean erabiltzen da, baina soil-soilik bikote-harremanetan ematen denean.

Emakumeen aurkako indarkeria definitzeko, *Emakumeen eta Gizonen Berdintasunerako otsailaren 18ko 4/2005 Legearen* 50. artikuluan eta 2002ko apirilaren 30ean *Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak Estatu Kideei Emakumea Indarkeriaz Babesteko onartutako Gomendioan* jasotakoa erabiltzea proposatzen da:

“...sexuaren ziozko edozein ekintza bortitz joko da emakumeen aurkako indarkeriatzat, baldin eta ekintza horrek emakumeari kalte fisiko, sexual edo psikologikoa edo sufrimendua ekartzen badio edo ekar badiezaioke. Jokaera horien artean sartuko dira emakumea ekintza horiek egitearekin mehatxatzea, hertsapenak egitea edo askatasuna arbitrarioki kentzea, bizitza publikoan edo pribatuan.”²

Aipatutako Gomendioan adierazitakoaren arabera, honako hauek sartzen dira indarkeria horren barruan, nahiz ez diren bakarrik:

¹Hor daude, besteak beste, NBEren Adierazpena, emakumeen kontrako indarkeria ezabatzearen ingurukoa (1993); Emakumearen gaineko Pekingo IV. Mundu Konferentzian onartutako Ekintzarako Oinarria (1995); Europako Kontseiluko Ministroen Batzordeak estatu kideei egindako Gomendia emakumeari indarkeriaren aurrean babesa ematearen inguruan (2002), eta emakumeen aurkako indarkeriaren ondorioak arintzeko eta indarkeria hori Europar batasunetik ezabatzeko jardunbide egokietarako Gida (2002).

² Emakumeen aurkako indarkeria ezabatzearen inguruko NBEren Adierazpenean (1993) eta Emakumearen gaineko Pekingo IV. Mundu Konferentzian onartutako Ekintzarako Oinarrian (1995) jasotako definizioak ere ildo beretik doaz.

- a) Familian edo etxean gertatzen den indarkeria, hala nola: eraso fisikoa eta mentala, abusu emozionala eta psikologikoa, bortxaketa et sexu-abusuak, intzestua, senar, mutil-lagun edo noizean behinkako lagunak edo berarekin bizi direnek emakumea bortxatzea, ohorearen izenean egindako krimenak, emakumeen aurkako mutilazio genital edo sexuala eta emakumearen kaltetan oraindik bizirik dirauten hainbat ohitura, behartutako ezkontzak, besteak beste;
- b) Gizartean gertatzen den indarkeria, honako hauek, besteak beste: bortxaketak, sexu-abusuak, lantokian, erakundeetan edo beste hainbat lekutan gertatzen den sexu-jazarpena edo larderia, esplotazio sexual eta ekonomikorako emakumeen legez kanpoko trafikoa eta turismo sexuala;
- c) Estatuak edo haren agintariek eragindako edo onartutako indarkeria;
- d) Gatazka armatuko egoeran emakumeen giza eskubideak urratzea, hala nola: emakumeak bahitzea, lekualdatzera behartzea, sistematikoki bortxatzea, sexu-esklabotza, haurdunaldi behartuak eta emakumeen trafikoa (sexu-esplotaziorako edo esplotazio ekonomikorako).

Etxeko tratu txarak eta sexu-erasoak jasaten dituzten emakumeei laguntza hobea emateko erakunde arteko Hitzarmenean jorratzen diren emakumeen aurkako indarkeria mota biei ekingo diegu ondoren.

1. Etxeko tratu txarrak

Lehen azaldu legez, emakumeen aurkako indarkeria emakumeen aurkako etxeko indarkeria baino zabalagoa da, eta leku anitzetan ager daiteke: familiaren edo harreman afektiboen esparruan, lanlekuetan eta ikastetxeetan, erakundeetan eta abarretan.

“Etxeko indarkeria” adierazpidea berdin erabiltzen da hizketa arruntean nola profesionalean. Europako Batzordeak glosategi bat egin zuen 1999. urtean, *Berdintasunerako 100 hitz. Gizon eta emakumeen arteko berdintasunaren inguruko terminoen glosategia* izenekoa, eta bertan, honela zedarritu zuen “etxeko indarkeria” terminoa: “edozein indarkeria-modu, fisikoa, sexuala edo psikologikoa, familiako kideren baten segurtasunari edo ongizateari arriskua dakarkiona; bortxa fisikoa edo emozionala nahiz bortxa fisikoaren mehatxua erabiltzea familian edo etxe barruan, sexu-indarkeria ere barne. Hemen sartzen dira umeen aurkako tratu txarrak, intzestua, emakumeen kontrako tratu txarrak eta etxe berean bizi den edonoren aurkako sexu-abusuak edo beste era bateko abusuak”.

Hortaz, honako hau joko da emakumeen aurkako etxeko indarkeriatzat³: emakumeari min eman edo sufrimendu fisikoa, sexuala edo psikologikoa ekar liezaiokeen egiteko edo ez egite oro nahiz kontrolatzeko edo mehatxatzeko jokabide, baldin eta familia-harreman baten eta/edo harreman afektibo baten barruan gertatzen bada, den harreman hori une horretan bizirik dagoen bat edo iraganeko bat. Indarkeria hori jarraituki erabiltzen bada, eta kontrolatzeko, menderatzeko, azpiratzeko eta harremanean aginte- eta botere-jarrera atxikitze erabiltzen bada, etxeko tratu txartzat jotzea proposatzen da.

Etxeko tratu txarren oinarria, alde zurretik ematen den botere-harreman bidegabe bat izaten da; izan ere, etxeko tratu txarren azken helburua ez da lesio jakin bat eragitea, baizik eta bestea azpiratzea eta menderatzea, eta harremanean aginpide- eta botere-jarrera bat atxikitzea. Hori dela eta, etxeko tratu txarrak, gehienbat, gizonezkoek eragiten dituzte, beren bikotekideen edo bikotekide ohien aurka.

Erasoak nolakoak diren kontuan hartuta, tratu txarrak lau motakotzat hartzea proposatzen da:

- a) Fisikoa. Biktimaren segurtasun fisikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da. Besteak beste, halako jokabideak barne sartzen ditu: bultzatzea, jotzea, erretzea, edota biktima erasotzeko armak edo beste tresnak erabiltzea.
- b) Psikologikoa edo emozionala. Biktimaren osotasun psikikoa arriskuan jarri edo kaltetu eta istripu ez den egintza da. Besteak beste, honakoak barne hartzen ditu: mehatxua, laidoa, iraina, gutxiespena, arbuio afektiboa eta, elkarrekintza, isolatze eta inkomunikazioa bezalako ekimenak blokeatzea.
- c) Sexuala. Biktimaren baimenik gabe egiten diren sexu-praktikei deritze.

³ Badira "etxeko" terminoa erabiltzearen aurkako iritziak. Bi dira funtsean aipatzen diren argudioak: bata, "etxeko" hitzak huskeria edo garrantzi gutxiko zerbaitez ari garela ulertaraz dezakeela eta, bestea, indarkeria honen sustraia familian dagoela eta ez gizartean. Lehengo argudioari gagozkiola, gure iritzi, hori uste dutenek badute jite androzentriko bat, zeren etxekoa hutsala delako ustea sistema patriarkalak guri guztiori ezarritako balore-sistemaren eraginaren ondorioa baita, izan ere, sistema horrek gutxietsi egiten baitu emakumeekin edo emakumetasunarekin zerikusia duen oro. Bigarren argudioarekin bat gatozen arren, uste dugu "etxeko" terminoa ezin dugula baztertu, nahiko hedaturik dagoelako eta pertsona gehienek ulertzeko modukoa delako, eta, orobat, horren ordezkari egokirik ere ez dugulako aurkitu; "tratu txarrak", edo "genero-indarkeria" bezalako terminoak, aditu batzuek erabiltzen dituzten arren, errealitate zabalagoak izendatzen dituzte: tratu txarrak elkarbizitzazko eta/edo afektuzko harreman batetik kanpora ere gerta daitezke (hala nola, zenbait erakundetan gertatzen direnak, espetxeetan, atxiloketa-guneetan, psikiatria-erakundeetan eta abarretan); bestetik, "genero-indarkeria" terminoak, emakumeek beren sexua dela-eta jasaten duten era guztietako indarkeriak hartzen ditu. "Etxeko" izenlagunak emakumeen aurkako indarkeria non gertatzen den zehazteko balio digu eta, horregatik, hura erabiltzea proposatzen dugu, hori bai, testuinguruak argi uzten baldin badu eremu pribatuko edo familia barruko arazo batez soilik ez garela ari.

- d) Ekonomikoa. Diruari buruzko informazioa edukitzeko eskubidea edo dirua bera erabiltzekoa ukatu egiten zaizkio tratu txarrak jasaten dituen pertsonari. Honakoak hartuko lituzke barne: xantaia ekonomikoa, diru-sarrerak erabat kontrolatzea, elkarren arteko ondasunetan emakumeei esku hartzen galarazi edo mugak jartzea, emakumeari lan egiten ez uztea edo janari-pentsioa ez ordaintzea.

Ohikoena da harreman berean era bateko eta besteko tratu txarrak agertzea.

2. Sexu-indarkeria

Sexu-erasotzat jotzen dira, beste pertsonaren adostasunik gabe gauzatzen diren izaera sexualeko jokabide guztiak. Honelako jokabideak hartzen ditu: exhibizionismoa, hitz lizunak, zirriak, laztanak, bortxaketak, etab.

Hiru motatako sexu-erasoak bereiztea proposatzen da:

- a) Sexu-erasoak. Indarkeria edo larderia tarteko direla gertatzen diren erasoak dira. Kasurik argiena bortxaketa da, bortxaketaren forma guztiak, hain zuzen.
- b) Sexu-abusuak. Indarkeriarik edo larderiarik gabe egiten diren erasoak dira. Hemen sartuko lirateke nahimena edo adimena gutxiagotuta edukitzeagatik (adingabekoak, zentzurik ez daukaten pertsonak edo ezgaitasun psikiko batzuk dauzkatenak, eta abar) baliozko adostasunik eman ezin dezaketen pertsonen aurka egindako abusuak .
- c) Sexu-jazarpena. Sexu-izaerako erasoak dira, hitzezkoak, hitzik gabekoak edo fisikoa, laneko, eskolako edo antzeko harremanen barruan gertatzen direnak. Honakoak izaten ditu xede eta ondorio: pertsonaren duintasunari erasotzea edo pertsonaren inguruan aukako giro beldurgarria, laidogarria, umiliagarria eta iraingarria sortzea. ⁴

Vitoria-Gasteiz, 2005eko azaroaren 25a

⁴ Emakueen eta Gizonen Berdintasunerako Eusko Legebiltzararen otsailaren 18ko 4/2005 Legearen 43.1. artikuluan eta 2002/73/CE Zuzentarauan jasotako definizio bera da.